

# MANUEL QUINTANA MARTELO

2022.03.12 - 2022.07.03

Rekalde Aretok Manuel Quintana Marteloren (Roxos, Santiago de Compostela, 1946) **Containers (2012-2022)** erakusketa aurkezten du, MARCO. Vigoko Arte Garaikidearen Museoak ekoitzia.

Lehen aldiz, *Containers* saileko ia 90 lan, pintura eta marrazki bildu dira. 2012tik artista etengabe ari da lanean sail honetan. Formatu desberdinetako koadroekin batera, erakusketan eskala handiko zirriborroak, marrazkiak eta akuarelak daude, eta erakusten duten multzoak artistaren lan egiteko modua eta euskarri desberdinen aurrean ematen duen erantzuna zehatz-mehatz ezagutzeko aukera ematen digu.

Azken urteotan, Quintana Martelok ardatz gisa hartu dituen margolanetan, artistak bisitatzeko hirietan aurkitzen dituen edukiontziak dira motiboa, abiapuntua eta aitzakia. Obra guztiek dute ezaugarri komun bat, arreta erakartzea lortzen duena: hasieran, eskulturaren presentzia zehatza, konposizio erakargarria eta inpaktu bisuala. Sailaren oinarria edukiontziak dira, eskultura-presentzia eta,aldi berean, hiriko bodegoi modura hartuta.



Ercilla kalea 15, 2022  
Teknika mistoa, 173 x 460 cm

Rekalde Aretoko erakusketarako, artista galiziarrek **Ercilla kalea 15** izeneko lana ekoitzi du, Bilbon Ercilla kaleko 15. zenbakian, 2021eko urriaren 25ean, 12:23an, ateratako argazkian oinarrituta. Edukiontzi hori Rekalde Aretoko erakuslehoan dago ikusgai, dagozkion zirriborroekin batera. Barrualdean, bere pieza enblematikoenetako bat ikusiko du bisitariak, **Don Tello 19**, 2014ko azaroaren 8an, 13:50ean, Gernikako Don Tello kaleko 19. zenbakian ateratako argazki batean oinarritutakoa.

## Containers pintatu

2012ko martxoaren 14an, 14:36an, Madrilgo Gran Vía, Atocha aldera paseatzen ari nintzela, Marqués de Cubas kaleko 23. zenbakian, edukiontzi hori bat ikusi nuen, eguzkiak eskuinetik ezkerrean zeihar jotzen zuela: nire argirik gogokoena eta ia nire obra osoan erabiltzen dudana. Argazki bat atera nuen, eta hurrengo egunetan edukiontzi bera ikusi nuen berriz, karga aldatuta, harik eta egun batean azaldu ez zen arte.




Marqués de Cubas 23, 2012-2015  
Olio pintura oihalean, 280 x 780 cm

Irudia erretinan eta pentsamenduan eduki nuen aldi batez, eta pentsatu nuen motibo ederra zela pintura baterako: haren inpaktu bisuala, karga ia perfektua (zuzenketa labor bat egin nuen argazkia ateratzean) eta argi bikaina. Hurrengo egunetan maiz begiratu nion argazkiari, eta bueltaka erabili nuen ideia bat buruan, pixkanaka forma hartzen ari zena: lanak handia behar zuen, ia benetako tamaina bilatu behar zen. Beraz, beharrezko materiala eskuratu, eta arriskuak hartu nituen nire gain, lan bat hasi eta nola amaituko den arrastorik ere ez duenak izaten dituen arriskuak.

Nire diskurtsoak azken emaitza etengabe bilatzera jotzen du, aldagai eta aukera asko aztertuz, paperarekin, argazki-irudiarekin, irudi errealekin, akuarelarekin, olioarekin eta abarrekin lan eginez, formen eta planteamenduen joko osoan arakaturik, irudia azken puntu batean gelditzeko, ondo jakinik puntu hori ez dela sekula "azkena" izango eta beti egongo direla hainbat aukera.

Obretako batzuk "beren" denboran mantentzen dira, eta beste batzuk aldatu dira, beti ikusten eta ekartzen baitituz bide desberdinak, aldatuz, mudatuz eta planteamendu desberdin bat eginez: hori da nire jolasa, zalantza eta aldaketarekiko dudaren ahulezia, nire lan egiteko modua.

Batzuetan, objektu bera behin eta berriz errepikatu behar izan dut aspertu arte: lehen irudi batetik abiatuta, lerro artean bilatzen dut nire helbururako baliagarria izan daitekeen beste edozein informazio. Errepikapenak, errepikapen ia obsesiboak, oso nabarmena *Lope de Vega* sailean, marrazkia eta haren aukera behin eta berriz azpimarratuz, aukera-sorta bat irekitzen du, eta azken emaitza makurtzen du ezer aztertu eta ebatzi gabe uzten ez duen gardentasun batera. Eta ikuspen etengabe eta errepikakor horrek, akiduraren sintoma gisa, zikloa ixteko eta diskurtso praktikoa amaitutzat emateko beharra uzten du, ondo jakinik, berriro hasiz gero, beste aukera batzuk itxi egingo liriatekeela berean eta/edo bide desberdinak irekiko lituzketela esploratzeko: bidea, jarraitutako ibilbidea, bidaia, pintatzeko abenturaren egia bakar eta onargarriena. Niretzat, zalantzarik gabe, hala da.



Don Tello 19, 2014-2017  
Olio pintura oihalean, 216 x 362 cm

Edukiontziak pintatzen ditut hiri-paisaian eguneroko elementua direlako, hondakinak eta ahanzturak uzteko lekua baino zerbait gehiago direlako, eta dibertigarria delako teoriari buruz pinturari buruz bezala zehaztasunik gabe aritzea, eta agian horixe egiten dut: zehaztasunik gabe aritu, aurkitu eta berriro aurkitu, ikusi eta ikusten dudana aztertu, ikusitako irudia objektualizatu eta nahi dudana adierazpenerako materia bihurtu.

Irudia plano baten barruan planteatzen dut, plano nagusian eta, beraz, aurrean dudana ekintzarako eremu bakarrean. Badakit altua eta zabala dela, badakit ez dagoela sakontasunik, badakit ez dela mundua ikusteko leiho bat, badakit ez dudala sakonki gezurrik esan nahi, hiru dimentsiotakoa objektuaren benetako ikuspegiaren baizik ez baitago, eta behin objektua planora pasatu ondoren pintatzeko jarreraren argumentu bihurtzen baita.

Agian dena mugatuko da maiz egiten dudana gogoeta batera: gero eta gutxiago interesatzen zait pintura eta gero eta gehiago pintatzeko ariketa. Ez dakit arrazoi dudana, ez dakit argudio ona den ekintza bat justifikatzeko, baina badakit horrek ez didala axola. Pintatzen dut.

## Manuel Quintana Martelo

### QUINTANA MARTELO

www.quintanamartelo.com

Roxosen jaio zen, Santiago de Compostelan, 1946an, eta hirurogeita hamarrekota hamarkadan ekintza zion bere ibilbide artistikoari, konpromiso sozial handia izanda. Bartzelonako Sant Jordiko Arte Ederretako Goi Eskolan ikasi zuen, eta bere lanak laster jo zuen hiri-korronteen eta korronte espresionisten prozesu-erregistroetara.

Laurogeiko hamarkadan *Atlántica* mugimenduan parte hartu zuen, eta laurogeita hamarreko hamarkadan New Yorken kokatu zen. Hor, arrakastaz erakutsi zuen bere lana, baita Caracasen, Miamin eta Porton ere. Irakasle eta zuzendaria izan zen Santiago de Compostelako Xelmírez Institutuan. Irakaskuntza-jarduera utzi, eta bere ekoizpen artistikoan oinarritu zen indar handiagoz.

Galiziako Artista Bisualen Elkarteko buru izan zen, eta gero Galiziako Arte Ederretako Errege Akademiaren ardura hartu zuen. Bere lanaren atzera begirako erakusketa bat izan da Galiziako Auditorioan (2007), monografiko bat Coruñaiko Diputazioan (2010) eta banakako erakusketa bat Coruñaiko Kiosko Alfonsoan (2011). 2012an Premio da Cultura Galega saria jaso zuen arte plastikoetan.

### rekalde

Alameda Recalde, 30 | 48009 Bilbao  
Tel. +34 94 406 85 32  
www.salarekalde.bizkaia.eus

### Ordutegia

Asteartetik larunbatera: 10 - 14 eta 17 - 20:30  
Igande eta jai egunetan: 10 - 14  
Astelehenetan itxita

### Horario

Martes a sábado: 10 - 14 y 17 - 20:30 h  
Domingos y festivos: 10 - 14 h  
Lunes cerrado

### Opening hours

Tuesday to Saturday: 10 - 14 and 17 - 20:30 h  
Sundays and holidays: 10 - 14 h  
Monday closed

sarrera doan | entrada libre | admission free

